

## Xedapen Orokorrak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

6237

AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroretara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak.

16/1983 Legeak (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari buruzkoak) hainbat helburu ezarri zizkion erakunde horri; horien arteko bat hauxe: azaroaren 24ko 10/1982 Legeak (Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak) agintzen duena betetzeko, erakunde horri dagokio euskara herri-administrazioan sartu, hedatu, aplikatu eta normalizatzea, bai eta administrazio-hizkera zehaztea ere.

Urriaren 14ko 241/2003 Dekretuak (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituenak) 15.1 artikuluan ezartzen duenez, erakunde horri dagokio, Euskalduntze Zerbitzuaren birtartez, «Euskadiko administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen hizkuntza-gaitasuna sustatu, antolatu eta ebaluatzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean eta horren garapenerako arauetan ezarritako moduan, hartara euskal administrazio publikoetan, beroriekin lankidetzan arituz, euskararen erabilera normalizatzeako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntzaren normalizaziorako ezarritako planekin bat etorritik.»

Eusko Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordeak 1989ko maiatzaren 17an onartutako Ebazpenak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, toki-administrazioko hizkuntza-normalizazioaren prozesuaren kostuak toki-administrazioaren gain bakarrik gera ez daitezen, azter ditzala prozesu horren finantzaketa-formulak, eta, ondoren, sar ditzala formulok dagokion araudian.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalizazioaren lehenengo plangintza-aldia hasi zenetik bertatik, alegia, 1990etik bertatik, HAEEK lankidetzak-hitzarmenak izenpetu izan ditu Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeekin, batetik, herri-erakunde horietan diharduten langileen

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

6237

ORDEN de 30 de noviembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula el servicio de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofertará a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y se establecen las normas reguladoras de las subvenciones por sustitución de personal al servicio de las administraciones municipales que asiste a los cursos de euskera.

La Ley 16/1983 sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública, establece entre los fines del Instituto, el de la introducción, difusión, aplicación y normalización del euskera en la Administración Pública, así como la fijación del lenguaje administrativo, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

El Decreto 241/2003, de 14 de octubre, por el que se regula la estructura y funciones del Instituto Vasco de Administración Pública, establece en su artículo 15.1. que corresponde a este Instituto por medio de su Servicio de Euskaldunización «impulsar, organizar y evaluar la capacitación lingüística del personal al servicio de las Administraciones Públicas de Euskadi, en los términos establecidos en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Ley de Función Pública Vasca y su normativa de desarrollo, en orden a colaborar con las Administraciones Públicas Vascas en la consecución de la normalización del uso del euskera en las mismas, conforme a los planes de normalización lingüística establecidos por la Viceconsejería de Política Lingüística».

La Resolución de la Comisión Parlamentaria de Instituciones e Interior del 17 de mayo de 1989, a fin de que los costes del proceso de normalización lingüística en la Administración Local no recaigan exclusivamente en los Ayuntamientos, insta al Gobierno Vasco a que estudie las fórmulas de financiación del mismo al objeto de que se incorporen a la normativa correspondiente.

Desde el inicio del primer período de planificación de la normalización lingüística en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco en 1990, tanto la capacitación lingüística del personal al servicio de los Entes Públicos, como el régimen subvencional para las sustituciones de personal de la administra-

hizkuntza-prestakuntza bermatzeko, eta, bestetik, toki-administrazioko langile horiek euskara-eskoletara joateagatik egin beharreko ordezkapenen dirulaguntza-erregimena zehazteko.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 1990eko otsailaren 26ko Ebazpenak finkatu zuen HAEEren eta toki-administrazioen arteko lankidetzahitzarmenaren lehenengo eredu; hitzarmenon arloa zen administrazio horietan diharduten langileen hizkuntza-prestakuntza. Geroago, HAEEko zuzendariaren 1992ko urriaren 5eko Ebazpenak argitara eman zuen HAEEK eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek arlo horretan izenpetu beharreko hitzarmen-ereduaren aldateta.

86/1997 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak) Azken Xedapenetatik Lehenengoak ezarri zuenez, HAEEK eguneratu egin beharko zuen erakunde honen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundearen arteko hitzarmen-eredua. Ereduan, halaber, ordu-kredituak ere egokitu egin beharko ziren dekretu horren Aldi baterako Lau garren Xedapenean aipatutako banan-banako prestakuntza-planetara.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1998ko ekainaren 9ko Aginduak Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek eskaini beharreko hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua arautu zuen, bai eta euskarako ikastaroetara joaten diren udal-administrazioen zerbitzuko langileen ordezkapenerako dirulaguntzen araudia ezarri ere; halaber, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundearen artean egin beharreko hitzarmenaren eredu berria ezarri zuen.

Bestalde, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzekoak, erakunde horretan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana arautu behar duten oinarriak ezarri zituen.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko apirilaren 30eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko herri-langileak euskalduntzeko ordu-kredituak nola aplikatu behar diren finkatu du, eta, horretarako, lan-orduetan hizkuntza-prestakuntza jaso ahal izateko gehieneko ordu-kredituak zeintzuk diren zehaztu du, haste-maila bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna gaintitze aldera hartu beharreko hizkuntza-prestakuntzaren gehieneko ordu-kredituak zeintzuk diren, alegia. Agindu horretan zehazten diren aurreikuspen eta neurrien bidez, hizkuntza-eskakizun jakin bakoitza apurka-apurka egiaz-

ción municipal por asistencia a clases de euskera, se ha desarrollado en el contexto de los convenios de colaboración que el IVAP ha venido suscribiendo con los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Resolución de 26 de febrero de 1990, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, estableció el primer modelo de convenio de colaboración entre el IVAP y las administraciones locales en materia de capacitación lingüística del personal al servicio de estas. Posteriormente, la Resolución de 5 de octubre de 1992, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, dio publicidad a la modificación del modelo de Convenio a suscribir entre dicho Instituto y los Entes de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de capacitación lingüística del personal al servicio de los mismos.

La Disposición Final Primera del Decreto 86/1997, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, estableció la necesidad de actualizar el modelo de convenio a suscribir entre el Instituto Vasco de Administración Pública y los Entes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, contemplando la adecuación de los créditos horarios a los planes de formación individualizados que se contemplan en la Disposición Transitoria Cuarta del citado Decreto.

La Orden de 9 de junio de 1998, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, estableció la regulación del servicio de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública había de ofertar a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco así como las normas reguladoras de las subvenciones por sustitución de personal al servicio de las administraciones municipales que asiste a los cursos de euskera, estableciendo, igualmente, un nuevo modelo de convenio a suscribir entre el Instituto Vasco de Administración Pública y los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por su parte, el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, estableció las bases que han de regular el Plan de Normalización del Uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

La Orden de 30 de abril de 2004, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, establece la aplicación de créditos horarios en la euskaldunización de los empleados públicos de la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca, asignando unos créditos horarios máximos de formación lingüística en horario laboral para la superación de los distintos perfiles lingüísticos desde cada nivel de inicio. Las previsiones y medidas contenidas en esta Orden facilitan la acreditación progresiva de los correspondientes perfiles lingüísticos, contribuyendo a que la formación lingüística recibida redunde, en mayor medida, en la consecu-

tatzeko bidea erraztu egiten da, eta, era horretan, lagundu egiten da jasotako prestakuntza hori baliagarri izan dadin plangintza-aldi bakoitzean iritsi beharreko hizkuntza-helburuetara hurbiltzeko.

HAEEK Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek eskaintzen dizkien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak arrazionalizatze eta bateratze aldera, eguneratu egin behar da Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1998ko ekainaren 9ko Agindua, honako hauek guztiak jaso dituzan: hizkuntza-eskakizunak gainditzeko ordu-kredituen sistema berria, ordu-kreditu berrien gehienezko denborak eta euskara-ikastaroetara joaten diren udal-administrazioetako langileak ordezkatzeko diru-laguntzen zenbateko berriak.

Era berean, komenigarritzat jotzen da ikastaroen eskaintza aldiroko ikastaro-deialdien bitartez egitea, ikasturte batetik bestera egin behar izaten diren egokitzapenak jaso ahal izateko. Horrekin lotu nahi da sistemari malgutasuna eman eta uanean-uanean sortzen diren beharrei egokitzeko modukoa izatea. Halaber, aginduari eta berak ezartzen duen lege-esparruari iraunkortasuna eman nahi zaio, bete-betean indarrean egoten jarraitu dezan denboran zehar.

Halaber, agindua Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arauen arabera egokitu behar izan da.

Bestalde, 2005eko azaroaren 22an egindako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak Hitzarmen Eredua onartu zuen, hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundearen artean izenpetzekoa. Hitzarmen hau agindu honen II. eranskinean argitaratzen da, aipatutako bilkuran erabakitakoa betez eta guztien ezagutzarako.

Azkenik, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretu horrek, Azken Xedapenetatik Bigarrean, ahalmenak ematen dizkie Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari eta Kultura sailburuari, zeinek bere eskumenen arloan, dekretua garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Horren guztiaren ondorioz,

ción de los objetivos lingüísticos que en cada periodo de planificación hayan de ser abordados.

Con el fin de racionalizar y homogeneizar los servicios de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofrece a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procede actualizar la citada Orden de 9 de junio de 1998, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, de forma que recoja tanto el establecimiento del nuevo sistema de créditos horarios para la superación de los distintos perfiles lingüísticos como la actualización de los tiempos máximos correspondientes a los nuevos créditos horarios, así como la actualización de las cuantías de las subvenciones por sustitución de personal al servicio de las administraciones municipales que asiste a los cursos de euskera.

Al mismo tiempo, se ha considerado conveniente que la oferta de cursos se haga mediante convocatorias periódicas de manera que puedan introducirse en cada curso escolar las previsiones que se consideren necesarias. Con ello se pretende que el sistema sea flexible y adaptable a las necesidades puntuales que vayan surgiendo y dotar así a la presente Orden de una perdurabilidad que permita mantener en el tiempo la vigencia del marco regulado por la misma.

También procede realizar la adaptación de la Orden a lo establecido en los preceptos de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de protección de datos de carácter personal.

Por otro lado, el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el 22 de noviembre de 2005, aprobó el modelo de Convenio a suscribir entre el Instituto Vasco de Administración Pública y los entes de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de capacitación y normalización lingüística. Este Convenio, en cumplimiento de lo acordado en el citado Consejo y para conocimiento general, se publica en el anexo II de esta Orden.

Finalmente, el ya mencionado Decreto 86/1997, de 15 de abril, en su Disposición Final Segunda, faculta a los Consejeros/as de Hacienda y Administración Pública y de Cultura para que, en el marco de sus respectivas competencias, dicten aquellas disposiciones que resulten necesarias en el desarrollo del citado Decreto.

En su virtud,

XEDATU DUT:

I KAPITULUA  
HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZAKO  
ZERBITZUAK

**1. artikulua.**– Hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuen arauak.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak) jasotako aurreikuspenen arabera, HAEEK Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek eskainiko dizkien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak agindu honetan ezarritakoari lotuko zaizkio beti. Horrez gain, HAEE-rekin lankidetzeta-hitzarmena duten herri-erakundeentzako euskara-ikastaroen urtean urteko deialdietan ezarritakoari ere lotuko zaizkio zerbitzuok.

**2. artikulua.**– Aplikazio-eremua eta zerbitzuok jaso ahal izateko betekizunak.

1.– Hona hemen agindu honetan araututako hizkuntza-zerbitzuak nortzuek jaso ditzaketen: Euskal Autonomia Erkidegoko udal-administrazioak eta foru-administrazioak eta beren erakunde autonomiadunak; Osakidetza, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Lan Harremanen Kontseilua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak, Eusko Legebiltzarra, Arartekoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arauzotarako Batzordea eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

2.– Agindu honetan araututako zerbitzuak jaso ahal izateko, aurreko paragrafoan aipatutako herri-erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

2.1.– Hizkuntza-normalizaziorako plana onartuta izatea, beti ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskaren erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Dekretuaren arabera eta Osakidetza-ri dagokionez, ordea, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzekoan) ezarritakoaren arabera.

2.2.– HAEEekin lankidetzeta-hitzarmenaren eredu berria izenpetuta izatea. Hitzarmena egiteko eredu berria agindu honetako II. eranskinean dago jasota.

**3. artikulua.**– Ikastaroaren helburuak eta hartzaileak.

1.– Agindu honetan araututako hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuen lehentasunezko helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetan dihar-

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DE LOS SERVICIOS DE CAPACITACIÓN  
LINGÜÍSTICA

**Artículo 1.**– Regulación de los servicios de capacitación lingüística.

Los servicios de capacitación lingüística que el Instituto Vasco de Administración Pública ofrecerá a los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el marco de las previsiones del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización lingüística de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se ajustarán a lo establecido en esta Orden con carácter general y a lo que establezca el IVAP en las correspondientes convocatorias anuales de cursos de euskera para los Entes Públicos con convenio de colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública, en particular.

**Artículo 2.**– Ámbito de aplicación y requisitos de acceso.

1.– A los servicios de capacitación lingüística regulados en esta Orden podrán acceder las Administraciones Municipales y Forales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, Osakidetza, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, el Consejo de Relaciones Laborales, la Universidad del País Vasco, las Juntas Generales de los Territorios Históricos, el Parlamento Vasco, el Ararteko, el Consejo Económico y Social Vasco y la Agencia Vasca de Protección de Datos.

2.– Para el acceso a los servicios de capacitación lingüística regulados en esta Orden, los Entes Públicos señalados en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos:

2.1.– Tener aprobado su plan de normalización lingüística, conforme a lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi o, en su caso, conforme a lo establecido en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de Normalización del Uso del Euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

2.2.– Haber suscrito previamente un convenio de colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública, según el modelo recogido en el anexo II a la presente Orden.

**Artículo 3.**– Objetivos y personas destinatarias de los cursos.

1.– Los servicios de capacitación lingüística regulados en esta Orden tendrán como objetivo prioritario la consecución del nivel de competencia lingüística corres-

duen karrerako funtzionarioek eta lan-kontratu finko-ko langileek dagokien hizkuntza-gaitasuna lortzea, baldin eta beren lanpostuek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izendatuta badute.

2.– Aurreko hori gorabehera, herri-erakundeetako gainontzeko langileei ere eskainiko die HAEEK hizkuntza-prestakuntza, betiere, agindu honetan ezarritakoaren arabera, eta langileen erakundeak kasuan-kasuan ezarritako lehentasunen arabera.

3.– Kapitulu honetan ezarritako hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuek muga bat izango dute, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan xede horretarako izendatutako aurrekontu-kopuruak. Agindu honetan araututako hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak finantzatzeko diru-baliabideak nahikoak ez badira, lehentasun hurrenkera honen arabera onartuko dira eskaerak:

3.1.– Karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoa duten langileak, baldin eta beren lanpostuak derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna badute.

3.2.– Karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoa duten langileak, baldin eta beren lanpostuak ez badute derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik.

3.3.– Karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoa duten langileak, baldin eta beren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizunetik gorako euskalduntzedo alfabetatze-maila lortu nahi badute.

3.4.– Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako lan-kontratua duten langileak, harik eta betetzen duten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna lortu arte. Atal honetan lehentasuna izango dute lanpostu hutsa bete arte bertan dihardutenek.

4.– Edozein modutan ere, ordu-kredituei dagokienez, hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuek agindu honen seigarren artikuluan ezarritako mugak izango dituzte.

#### 4. artikulua.– Euskara-ikastaroen finantzaketa.

1.– Agindu honetan araututako hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuei dagokienez, HAEEK euskara-ikastaroen matrikularen kostua hartuko du bere gain. Halaber, ikastarook barnetegian egiten badira, ostatu- eta mantenu-gastuak ere bere gain hartuko ditu HAEEK.

2.– Langileen hizkuntza-prestakuntzako prozesuak sortutako bestelako gastuak, horien artean, euskaltegi-rajoteak eta material didaktikoa erosteak eragindako gastuak, ez dira HAEEren kontura izango.

#### 5. artikulua.– Euskara-ikastaroetarako deialdiak.

1.– HAEEK urtero-urtero egingo ditu bidezko diren euskara-ikastaroetarako deialdiak agindu honen

pendiente por parte del funcionariado de carrera y personal laboral fijo al servicio de los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que tengan asignado a su puesto de trabajo un perfil lingüístico preceptivo.

2.– No obstante lo anterior, la capacitación lingüística del resto del personal será igualmente atendida por el Instituto Vasco de Administración Pública, con arreglo a lo establecido en esta Orden, y de acuerdo con las prioridades que en cada caso disponga el Ente Público al que pertenezca dicho personal.

3.– Los servicios de capacitación lingüística establecidos en este capítulo estarán sujetos a la limitación de las dotaciones presupuestarias disponibles a tal fin en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Cuando los recursos económicos destinados a financiar los cursos de capacitación lingüística regulados en esta Orden fueran insuficientes para responder a la demanda existente, la admisión del personal a los cursos correspondientes se llevará a cabo de conformidad con el siguiente orden de prioridades:

3.1.– Funcionarios/as de carrera y personal con contrato laboral fijo cuyo puesto de trabajo tenga perfil lingüístico preceptivo.

3.2.– Funcionarios/as de carrera y personal con contrato laboral fijo cuyo puesto de trabajo no tenga perfil lingüístico preceptivo.

3.3.– Funcionarios/as de carrera y personal con contrato laboral fijo, para el acceso a niveles de euskaldunización y/o alfabetización superiores al perfil correspondiente a su puesto de trabajo.

3.4.– Funcionarios/as interinos/as y personal con contrato laboral temporal, hasta alcanzar el perfil lingüístico asignado al puesto de trabajo que ocupan. En este apartado gozarán de prioridad quienes ocupen puestos de trabajo hasta la cobertura de vacante.

4.– En todo caso, los servicios de capacitación lingüística estarán sujetos a las limitaciones establecidas en el artículo sexto de esta Orden en relación con los créditos horarios.

#### Artículo 4.– Financiación de los cursos de euskara.

1.– En los servicios de capacitación lingüística regulados en esta Orden, el IVAP asumirá el costo de la matrícula de los cursos de euskara y, en el caso de que los cursos se desarrollen en régimen de internado, los gastos de hospedaje y manutención.

2.– No será a cuenta del IVAP el abono de los restantes gastos que genere el proceso de capacitación lingüística y, singularmente, los que pudieran producirse en concepto de desplazamientos al euskaltegi y material didáctico.

#### Artículo 5.– Convocatorias de cursos de euskara.

1.– El IVAP realizará anualmente las oportunas convocatorias de cursos de euskara destinadas al personal

aplikazio-eremuan sartzen diren herri-erakundeetako langileentzat, agindu honen bigarren eta hirugarren artikuluetan hazten denaren arabera. Deialdi horiek HAEEKo zuzendariaren ebazpen bidez egingo dira eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

2.– Deialdi horietan, HAEEK honako xehetasun hauek emango ditu, gutxienez:

2.1.– Ikastaroen eskaintza.

2.2.– Ikastaroetan parte hartzeko eskabideak: nola eta noiz egin.

2.3.– Euskara ikasteko eskolen antolaketa: taldeak eratzea, matrikula-orriak...

2.4.– Bertaratzeen eta aprobetxamenduaren gaineko arauak euskara ikastaroetan. Ikastaroak hastea eta uztea.

2.5.– Datu pertsonalak babesteko behar diren neurriak, honako arau hauek betetze aldera: Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta datu pertsonalak dauzkaten fitxategi automatizatuaren segurtasun-neurriei buruzko araudia, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak onartua.

#### 6. artikulua.– Ordu-kreditua.

1.– Ordu-kredituen sistema berria ezartzen da. Horren bidez finkatzen da HAEEK gehienez zenbat ordu finantzatu dituen hizkuntza-eskakizunak hurrenez hurren egiaztatzeko agindu honetan araututako hizkuntza-prestakuntzaren barruan.

2.– Ordu-kredituaren definizioa.

2.1.– Ordu-kreditua da hizkuntza-eskakizun bakoitzaren lortzeko herri-administrazioak finantzatu duen prestakuntza-orduen gehienezko kopurua, hasiera-maila jakin batetik abiatuta.

2.2.– Agindu honetako I. eranskinean dago jasota hasiera-maila bakoitzetik abiatuta hizkuntza-eskakizun bakoitzerako ezarritako ordu-kopurua zein den.

3.– Herri-administrazioko langile bakoitzari dagokion hasierako ordu-kreditua finkatzea.

3.1.– Pertsona bakoitzari dagokion hasierako ordu-kreditua bi elementu hauen arabera finkatuko da:

a) Eskatzaile bakoitzak duen euskara-maila. 2006-2007 ikasturtearen hasieran ikasle bakoitzak hasi behar duen euskalduntze edo alfabetatze maila da, edo kasuan kasu, arau hau indarrean sartzen den momentutik euskara eskoletara lehenengo aldiz joaten den ikastaroaren hasiera-egunean duena. Hasierako maila horren arabera finkatuko dira ikasleak bere prestakuntza-prozesu osoan zehar egiaztatu beharko dituen hizkuntza-eskakizunen ordu-kredituak.

b) Egiaztatu beharreko hurrengo hizkuntza-eskakizuna: egiaztatu den azkenaren ondorengoa da, edo bat ere ez bada egiaztatu, 1. hizkuntza-eskakizuna.

pertenezte a los Entes Públicos del ámbito de aplicación de la presente Orden, definido en los artículos segundo y tercero de la misma. Estas convocatorias serán realizadas mediante Resolución del Director del IVAP que serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– En dichas convocatorias el IVAP determinará, al menos, los siguientes extremos:

2.1.– Oferta de cursos.

2.2.– Solicitudes de cursos: cómo realizar las solicitudes y plazos para ello.

2.3.– Organización de las clases de euskera: formación de grupos, hojas de matrícula...

2.4.– Normas sobre asistencia y aprovechamiento de los cursos de euskera. Inicio y abandono de los cursos.

2.5.– Las oportunas consideraciones en orden a dar cumplimiento a las previsiones contenidas en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, así como en la normativa sobre medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contienen datos personales aprobado mediante Real Decreto 994/1999, de 11 de junio.

#### Artículo 6.– Crédito horario.

1.– Se establece un nuevo sistema de créditos horarios para regular el tiempo máximo de horas de formación financiado por el IVAP para la acreditación de los sucesivos perfiles lingüísticos en el contexto de la capacitación lingüística regulada en esta Orden.

2.– Definición de Crédito Horario.

2.1.– Se denomina crédito horario al número máximo de horas de formación financiadas por la administración pública, para alcanzar cada perfil lingüístico desde un nivel de inicio determinado.

2.2.– La concreción del número de horas para cada perfil lingüístico desde cada nivel de inicio será el establecido en el anexo I de esta orden.

3.– Cuantificación del crédito horario inicial de cada empleado/a público/a.

3.1.– El crédito horario inicial para cada persona se establecerá en función de los dos elementos siguientes:

a) El nivel de euskera de cada solicitante. Es el nivel de euskaldunización o alfabetización que corresponda a cada alumno/a al comienzo del curso 2006-2007 o, en su caso, al comienzo del primer curso en el que se incorpore a clases de euskera por primera vez tras la entrada en vigor de esta norma. Este nivel de inicio será la referencia para la determinación de los créditos horarios para todos los perfiles lingüísticos que se deban acreditar a lo largo de su proceso formativo.

b) El próximo perfil a acreditar: es el perfil inmediatamente superior al último perfil acreditado individualmente o, en caso de no tener ninguno acreditado, el perfil lingüístico 1.

3.2.– Egiaztatu beharreko hizkuntza-eskakizun bakoitzerako ordu-kreditu jakin bat edukiko du pertsona bakoitzak, hizkuntza-prestakuntzako bere prozesuan zehar, eta, unean-unean, egiaztatu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizunari dagokiona egongo da indarrean.

4.– Ordu-kredituaren kalkulua eta saldoa.

4.1.– Ordu-kreditua agortuz joango da ikasturtea aurrera joan ahala, eta hilean-hilean taldeari emandako ikastorduak zenbatuko dira horretarako. Pertsona horren taldean ematen den lehenbiziko eskola-egunetik hasiko da zenbaketa eta ikasturtea amaitu arte edo, hala balegokio, ikasturtean behin betiko baja ematen zaion arte egingo da.

4.2.– Pertsona bakoitzak saldo bat edukiko du uneoro bere ordu-kredituan, eta saldo hori honela neurtuko da: egiaztatu beharreko hurrengo hizkuntza-eskakizunari dagokion ordu-kredituari, hasierako mailatik abiatuta kontsumitu dituen prestakuntzako ikastorduak kenduko zaizkio, aurreko paragrafoan adierazi bezala zenbatuta.

4.3.– Hizkuntza-eskakizun bat egiaztatu eta gora-goko hizkuntza-eskakizuna lortzeko hizkuntza-prestakuntza hartzen jarraitu behar denean, ordu-kreditu berria izango da. Ordu-kreditu hori egiaztatu beharreko hurrengo hizkuntza-eskakizunaren araberakoa izango da, eta saldoa berriro kalkulatzeko, ordu-kreditu berriari kenduko zaio hasiera mailatik kontsumitutako prestakuntza-denbora.

5.– Aldeko saldoa ordu-kredituan.

5.1.– Euskara-ikastaro bat hasi ahal izateko beharrezkoa izango da ordu-kredituan aldeko saldoa edukitzea. Ikastaroan zehar saldoa agortu egiten bada, ikastaroa amaitu arte jarraitu ahal izango da.

5.2.– Edonola ere, saldoa agortu denetik aurrera kontsumitu diren ikastorduak berdin zenbatuko dira ordu-kreditua eguneratzean 4. artikuluan xedatutako ondorioetarako, betiere hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen bada, eta hizkuntza-prestakuntza jasotzen jarraitu behar badu hurrengo hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izateko.

6.– Ordu-kreditua agortzea.

6.1.– Ordu-kreditua hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe agortzen bada, ikasleari ez zaio beste eskaerarik onartuko agindu honen arabera finantzatutako euskara-ikastaroetan.

6.2.– Dagokion hizkuntza-eskakizuna gaindituz gero, agindu honen arabera finantzatutako euskara-ikastaroak egiten jarraitu ahal izango du, baina betiere unean-unean indarrean dagoen deialdiaren arabera. Horrelakoetan, ordu-kredituaren saldoa eguneratu egingo da artikuluko 4. puntuan ezarritakoaren arabera.

3.2.– Cada persona, a lo largo de su proceso de formación lingüística, dispondrá de un crédito horario para cada perfil lingüístico a acreditar, estando vigente en cada momento el que corresponda al próximo perfil a acreditar.

4.– Cómputo del crédito horario y saldo de crédito horario.

4.1.– El crédito horario se irá consumiendo a lo largo del curso, computándose para ello las horas lectivas impartidas mensualmente. Este cómputo se hará desde el primer día de clase impartida en su grupo hasta la finalización del curso académico o, en su caso, hasta el momento en que se cause baja definitiva en el curso.

4.2.– Cada persona dispondrá en todo momento de un saldo de crédito horario igual al crédito horario que le corresponda para el próximo perfil a acreditar menos el tiempo lectivo de formación consumido desde su nivel de inicio, conforme a lo establecido en el punto anterior.

4.3.– Cuando se logre acreditar un perfil lingüístico y se deba seguir recibiendo formación lingüística para un perfil superior, su nuevo crédito horario será el que corresponda al próximo perfil a acreditar y el nuevo saldo de crédito horario será la diferencia entre el nuevo crédito horario y el tiempo de formación consumido desde su nivel de inicio.

5.– Saldo de crédito horario positivo.

5.1.– Para poder iniciar un curso de euskera será necesario tener un saldo de crédito horario positivo. En el caso de que éste se agote a lo largo del curso, se podrá continuar hasta el final del mismo.

5.2.– En todo caso, las horas de formación lectivas a partir del agotamiento del saldo de crédito horario computarán igualmente en la actualización del crédito horario a los efectos de lo establecido en el punto 4 de este artículo, en el caso de que se consiga aprobar el perfil lingüístico y haya de seguir recibiendo formación lingüística hacia un perfil superior.

6.– Agotamiento del crédito horario.

6.1.– Cuando se agote el saldo de crédito horario sin haber superado el perfil lingüístico correspondiente, no le serán admitidas nuevas solicitudes para cursos de euskera financiados al amparo de esta Orden.

6.2.– Cuando se consiga aprobar el perfil lingüístico correspondiente podrá volver a realizar cursos de euskera al amparo de esta Orden, conforme a las convocatorias que estén en vigor en cada momento. En este caso, se procederá a la actualización del saldo de crédito horario según lo establecido en el punto 4 de este artículo.

## II. KAPITULUA

EUSKARA-IKASTAROETARA JOATEN DIREN  
LANGILEAK ORDEZKATZEKO DIRULAGUNTZAK

**7. artikulua.**– Dirulaguntzen helburua eta esleipena.

1.– Kapitulu hau osatzen duten manuen helburua da euskara-eskoletara doazen langileak ordezkatzeko dirulaguntzak nola esleituko diren arautzea, alegia, nola emango zaizkien dirulaguntzak udal-administrazioei, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egonik eta partzialki edo guztiz liberatuta egonik hizkuntza-eskakizun hori eskuratu arte euskara-ikastarotara joaten diren langileak ordezkatzeko kostua finantzatzearen.

2.– Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izendatutako dirua erabiliko da, zehazki Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea erakunde autonomiadunari dagokiona. Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran dirulaguntzak emateko izendatutako diru-kopurua HAEEko zuzendariaren ebazpen bidez jakinaraziko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

3.– Ekonomia-ekitaldi baten barruan emango diren laguntzen bolumen osoak ez du izendatutako dirua gaindituko. Halaber, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira, laguntzen bolumen osoak ezin izango du horrela eguneratutako kopurua gainditu. Eguneratze horren berri ere HAEEko zuzendariaren ebazpen bidez emango da argitaratu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

4.– Hamahirugarren artikuluan ezarritakoaren arabera ordaindu beharreko dirulaguntzen kantitate osoa handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako diru-kopurua baino, orduan, banaketa proportzionala egingo da herri-erakundeen artean, beti ere era honetan:

4.1.– Lehenengo aldian, alegia, urtarriletik ekainera bitartekoan, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izendatutako kopurua baino, orduan, aldi horretan banaketa proportzionala egingo da herri-erakundeen artean, eta aurrekontua agortutzat joko da. Kasu horretan, ez da dirulaguntzarik emango bigarren aldian.

4.2.– Bigarren aldian, alegia, uztailetik abendura bitartekoan, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada horretarako izendatutakoa baino, orduan, aldi horretan banaketa proportzionala egingo da herri-erakundeen artean; eta horrek ez du eraginik izango lehenengo aldian emandako kantitatean.

**8. artikulua.**– Dirulaguntzak lortzeko betekizunak eta dirulaguntzen onuradunak.

## CAPÍTULO II

DE LAS SUBVENCIONES POR SUSTITUCIÓN  
DE PERSONAL ASISTENTE A LOS  
CURSOS DE EUSKERA

**Artículo 7.**– Objeto de las subvenciones y adjudicación de las mismas.

1.– Los preceptos que integran el presente capítulo tienen por objeto establecer las normas que regularán la concesión de subvenciones a administraciones municipales para la financiación del coste generado por las sustituciones del personal con perfil lingüístico preceptivo a su servicio liberado parcial o totalmente para asistir a clases de euskera hasta la consecución del perfil lingüístico del puesto de trabajo.

2.– A este fin se destinará la cantidad consignada en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País vasco correspondiente al Organismo Autónomo Instituto Vasco de Administración Pública. La cantidad consignada al inicio de cada ejercicio presupuestario se dará a conocer mediante Resolución del Director del IVAP publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– El volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. Dicha actualización se dará a conocer mediante Resolución del Director del IVAP publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– En caso de que la cantidad total de subvenciones a pagar, según lo establecido en el artículo decimotercero, fuera mayor que la dotación presupuestaria disponible para ello, se procederá al prorrateo proporcional a la cantidad que corresponda a cada Ente Público, de acuerdo a lo siguiente:

4.1.– Cuando la cantidad a pagar en el primer período, es decir, enero-junio, sea superior a la dotación presupuestaria total consignada en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se procederá al prorrateo proporcional a la cantidad que corresponda a cada Ente Público para dicho período, dando por agotado el presupuesto. En este supuesto, no procederá la concesión de ayudas para el segundo período.

